

XEDAPEN OROKORRAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

705

AGINDUA, 2018ko urtarrilaren 31koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzen dituena.

Aintzat hartuz Artxibo Zerbitzuetako Araudia eta Euskal Autonomia Erkidegoko Dokumentazio Ondarea erregulatzeko arauak onartzen dituen azaroaren 21eko 232/2000 Dekretuaren 30., 31., 32. eta 33. artikuluetan xedatutakoa; eta Dokumentuak Balioesteko eta Aukeratzeko Batzordeak 2018ko urtarrilaren 22ko bileran onartutako dokumentuak ebaluatzeko taulen proposamenak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Agindu honen I. eranskinean azaltzen diren dokumentuak ebaluatzeko taulak onartzea.

Bigarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko urtarrilaren 31.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

I. ERANSKINA

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Toki Administrazioaren dokumentazio propioa.

Seriearen kodea:	0197
Dokumentu-seriea:	Zerbitzuen eguneko parteak
Ebazpena:	Erabateko suntsiketa bulegoko artxiboan
Epea:	Bi urte
Erakundea:	Udalak

Seriearen kodea:	0198
Dokumentu-seriea:	Polizia-atestatua
Ebazpena:	Kontserbazio iraunkorra
Epea:	
Erakundea:	Udalak

2.– Euskadiko Administrazio Publiko osoari dagokion dokumentazio komuna.

Seriearen kodea:	0199
Dokumentu-seriea:	Ondoz ondoko konkurrentziako diru-laguntzen espedienteak
Ebazpena:	Espediente orokorrak (jarduketa-oinarri orokorrak eta berariazkoak, proiektuen balorazioak eta arlo juridikoak eta ikuskaritzakoak egindako izaera orokorreko txostenak) kontserbazio iraunkorra izango du. Bulegoko artxiboan suntsitu ahalko dira ukatutako banakako espedienteak deialdia ebatzi eta urtebetera; eta, emandako banakako espedienteak deialdia ebatzi eta zortzi urtera
Epea:	Zortzi urte
Erakundea:	Euskadiko administrazio publikoak